cineclub fas

Abril/Mayo/Junio 2024 Apirila/Maiatza/ Ekaina

**El mejor cine de autor en versión original**

**J.B.an zinemarik onena**



Retratos fantasma
Las tierras del cielo
Negu hurbilak
Earwig
Zinzindurrunkarratz
Not a pretty picture
La luna se levanta
Vidas pasadas
Te estoy amando locamente
'Pioneras del cine mudo francés'

# El regreso de las golondrinas

Li Ruijun

# ¡HAZTE SOCIO/A!

La mejor oferta cinematográfica de Bilbao
Todas las sesiones en V.O.
Conferencias sobre cine
Coloquios con directores, actores, críticos...
Acceso a la biblioteca del cineclub
Invitación a eventos cinematográficos
De lunes a viernes precio de día del espectador en los Multicines

# BAZKIDE EGIN!

Bilboko zine eskaitzarik onena
Emanaldi guztiak J.B.an
Zinemari buruzko hitzaldiak
Zuzendari, aktore, kritikarekin,... solasaldiak
Zineklubaren liburutegia erabiltzeko aukera
Zine ekitaldietarako gonbidapenak
Multicines-etan astelehenetik ostiralera ikuslearen egunezko prezioan



# PROGRAMA
# EGITARAUA

## ABRIL/APIRILA

**9**
**RETRATOS FANTASMA**
Kleber Mendoça Filho
+ Chiquitita, Aitor Elorriaga

**16**
**LAS TIERRAS DEL CIELO**
Pablo García Canga
+ Canción Amarga, Lorenzo D. García

**23**
**NEGU HURBILAK**
Colectivo Negu
+ Arnasa, Raúl Barreras

**30**
**EARWIG**
Lucile Hadzihalilovich

## MAYO/MAIATZA

**7**
**ZINZINDU-RRUNKARRATZ**
Oskar Alegría
+Kusikozu, Aitor irulegi

**14**
**NOT A PRETTY PICTURE**
Martha Coolidge
+ Asko falta da?, Ane Cuesta Monge

**21**
**LA LUNA SE LEVANTA**
Kinuyo Tanaka

**28**
**VIDAS PASADAS**
Celine Kong
+ Sorbeltza, Iban del Campo

## JUNIO/EKAINA

**4**
**EL REGRESO DE LAS GOLONDRINAS**
Li Ruijun

**11**
**TE ESTOY AMANDO LOCAMENTE**
Alejandro Marín

**18**
**PIONERAS FRANCESAS**
Alice Guy

# TARIFAS SALNEURRIAK

| | |
|---|---|
| **Carné socio*** / Kide txartela* | 56€ |
| **Bono 10 sesiones** / 10 sarrera bonua | 45€ |
| **Cuota de preinscripción**** / Izen emate kuota** | 5€ |

Hiruhilabeteko emanaldi guztiak dohainik izango dira bazkide guztientzat

Fas Zineklubak liburutegi zerbitzu osotu bat eskaintzen du, entziklopedi eta milaka liburu eta aldizkariekin

Todas las proyecciones del trimestre serán gratuitas para nuestros socios

El Cineclub Fas dispone de una completa biblioteca con cientos de libros y miles de revistas de cine

*Estudiantes y parados / ikasle eta langabeziak: 44 €

**Estudiantes y parados / ikasle eta langabeziak: 3 €

# PRESENTACIÓN AURKEZPENA

2024, bisurtea. Año bisiesto (2010), 2012an Fasek proiektatu zuen film mexikar gogor hura, oroitzapenak. Bisurtea, Olinpikoa ere ematen du (Paris 2024), eta olinpikoa 5 eraztun (zirkuluak) bistaratzen ditu. Fas hiru hiruhilekotan geratzen da, urteko 2. eraztun honi zinemarekiko maitasunez aurre egiten diogu (beti bezala), Brasilen hasten da Retratos fantasma (Kleber Mendoça filho. 2023) filmarekin eta Frantzian zehar 'eraztuna' itxi genuen Pioneras del cine mudo francés (Alice Guy, Germaine Dulac,... 1898-1923) filmarekin.

Eta trostan gabiltzanez, 2023 begiratuko ditugu munduko 'A' zinemaldi horiek (15): 1/Otsailan Berlín-en, Sur l'Adamant. 2/Maitzan Cannes-en, Anatomie d'une chute. 3/Ekainan Shanghai -n (Txina), Yoko. 4/Ekainan Karlovy Vary-n (Txekia), La lección de Blaga. 5/Uztailan Mosku-n (Rusia), GUDAN (2022-otsaila). 6/Abuztuan Locarno-n, Critical Zone. 7/Abuztuan Montreal-en (Kanada), A Letter from Helga. 8/Irailan Venezia-n, Poor Things. 9/Irailan Donostia-n, O corno. 10/Urrian Varsovia-n (Polonia), La sombra del Catire. 11/ Urrian Tokio-n, Snow Leopard. 12/Azaroan Mar del Plata-n (Argentina), Kinra. 13/Azaroan Tallin-en (Estonia), Misericordia. 14/Azaroan El Cairo-n (Egipto), GAZAKO GERRA DELA BERTAN BEHERA UTZI. 15/Azaroan Goa-n (India), - ——berririk ez. Zinema ikusteko.

2024, bisiesto. Año bisiesto (2010), aquella dura película mexicana que proyectó el Fas en 2012, recuerdos. Bisiesto, también suena a Olímpico (París 2024), y olímpico visualiza 5 anillos (círculos). El Fas se queda en tres anillos (trimestres), afrontamos este 2º anillo del año con amor al cine (beti bezala), se inicia por Brasil con Retratos fantasma (Kleber Mendoça filho. 2023) y cerramos 'anillo' por Francia con las Pioneras del cine mudo francés (Alice Guy, Germaine Dulac,... 1898-1923).

Y ya que estamos de trotamundos, echaremos una ojeada 2023 a esos festivales 'A' del mundo (15): 1/En febrero Berlín, Sur l'Adamant. 2/En mayo Cannes, Anatomie d'une chute. 3/En junio Shanghai (China), Yoko. 4/En junio Karlovy Vary (Chequia), La lección de Blaga. 5/En julio Moscú (Rusia), EN GUERRA (feb-2022). 6/En agosto Locarno, Critical Zone. 7/En agosto Montreal (Canadá), A Letter from Helga. 8/En septiembre Venecia, Poor Things. 9/En septiembre Donostia, O corno. 10/En octubre Varsovia (Polonia), La sombra del Catire. 11/En octubre Tokio, Snow Leopard. 12/En noviembre Mar del Plata (Argentina), Kinra. 13/En noviembre Tallin (Estonia), Misericordia. 14/En noviembre El Cairo (Egipto), CANCELADO POR LA GUERRA EN GAZA. 15/En noviembre Goa (India), ——-sin noticias. Cine para ver.

# RETRATOS FANTASMA

## RETRATOS FANTASMAS

Zinemagilea izan baino lehen zinemazalea izan, eta brasildar zuzendaria iragan urteetan izandako oroitzapenetan murgiltzen da, Recife bere hiriko zinema aretoetara joaten zenekoetan. Gogorapen hori askorentzat ezaguna gerta daiteke: zinema aretoak aisiarako zirrikitu garrantzitsuena zirenekoa, baita beste pertsonekin topatzeko ere; aisialdi partekatua eta bizipen pertsonal eta kolektiboa.
Zinemazaletasunaren arloko kronika bat da, kritikoak eta errealizadoreak elkartzen dituena zinemaz eta haien bizipenez hitz egiteko. Hala, zinemak hirian izandako eboluzioa erakusten digute, hango proiekzio aretoen bitartez: zinema lan esanguratsuak, elkarri lotuta daudenak anekdota pertsonalekin, oroitzapenekin eta nostalgiarekin. Baita hiriaren eboluzioaren gaineko mezuak, klase kontzientziarenak eta borroka politikoarenak ere.
Film ederra, tristea eta hunkigarria.

Cinéfilo antes que cineasta, el director brasilero se zambulle en sus recuerdos de los años pasados en las salas de cine de su ciudad, Recife (Pernambuco). Evocación que a muchos nos puede resultar familiar; vivencias de cuando las salas de cine eran el más importante reducto de ocio y también de encuentro con otras personas; ocio compartido y experiencia personal y colectiva.
Una crónica de la cinefilia que reúne a críticos y realizadores para hablar de cine y de sus vivencias y así nos muestran la evolución del cine en la ciudad a través de sus salas de proyección; obras de cine significativas que se entrelazan a través de anécdotas personales, recuerdos y nostalgia. También mensajes sobre la evolución de la ciudad, la conciencia de clase y la lucha política.
Una película bella, triste y emotiva.

**19:45**
9/4/2024





## BRASIL - 2023 - 93 min

**Dir** Kleber Mendoça Filho
**G** Kleber Mendoça Filho
**Mus** Tomaz Alves de Souza
**Int** (Documental) Kleber Mendoça Filho

**+ Chiquitita,** Aitor Elorriaga. 3'. Fic.

**Inv** Aitor Elorriaga, Aiora Sedano

# LAS TIERRAS DEL CIELO

Las tierras del cielo hasten da telefono elkarrizketa batekin; gizon batek beste norbaiti Japoniako film zahar bat ikusi berri duela kontatzen dabilkio; leunki baina setati, saiatuz bere berbekin irudietan ikusitako indarra transmititzen. Hasierak badirudi iragartzen duela hitzezko filma izango dela gehiago irudizkoa baino. Hala, bost elkarrizketa erakutsiz joango dira, zeinetan protagonistek beren emozioak azalduko dituzten, zeozelan ere terapia bat izango balitz bezala. Historia pertsonalak, egiazkoak edo asmatuak kontatuko dituzte. Elkarrizketa pausatuak, zuri-beltzezko argazkiarekin inguratuak; berbetan dabiltzanen plano estatikoak eta dauden tokienak.

Ez dago igarriko loturarik elkarrizketen artean, baina bai zeozelako jarraipen misteriotsu bat berben jarioaren bitartezkoa.

Las tierras del cielo se inicia con una conversación telefónica; un hombre describe a otra persona una vieja película japonesa que ha visto recientemente; suavemente pero con insistencia, tratando que sus palabras trasmitan la potencia de las imágenes que contempló.

El arranque parece anunciar que no se trata de una película de imágenes sino de palabras. Así se nos van mostrando cinco conversaciones, en las que sus protagonistas se expresan emocionalmente, un poco como si de una terapia se tratara. Cuentan historias personales, verídicas o inventadas. Diálogos pausados, envueltos por una fotografía en blanco y negro; planos estáticos de las personas que dialogan y de los lugares en que se encuentran.

No hay conexiones evidentes entre las distintas conversaciones, pero sí una especie de misteriosa continuidad a través de la fluidez de las palabras.

**19:45**
16/4/2024





## ESPAÑA - 2023 - 83 min

**Dir** Pablo García Canga
**G** Pablo García Canga
**Fot** Pablo García Canga
**Mus** Macarena Montesinos
**Int** Luis Moreno, Paula Ruiz, Lola Casamayor, Violeta Gil, Andrés Gertrudix, Carlos Troya, Itziar Manero

**+ Canción Amarga,** Lorenzo Damián García. 12'. Fic.

**Inv** Pablo García Canga, Lorenzo Damián García

# Pablo García Canga

## BIOgrafía



(Madril. 1981) Parisko La Fémis-en Zinema Zuzendaritzan diplomatua. 2004an filme ertain 'pertsonala' egin zuen Para Julia. 2012an Pissing Territories film laburra zuzendu zuen berriro, eta Retrato en dos tiempos (2014) film ertaina jarraitu zion. Bere zinemaren ezaugarria hitza da, erretratuak deskribatzeko garrantzi berezia hartzen duena. Gonzalo García Pelayo, Santos Díaz eta Ángel Santos zinemagileentzat gidoiak egiten jarraitzen du. 'Amistad, el último toque Lubitsch' (Samson Raphaelson. 2012) ere gaztelaniara itzuli zuen, eta aldi berean Lumière, Détour, Foco edo SoFilm aldizkarietarako kritika idazten du.
2020an 'Ozu, multitudes' (Athenaica) idatzi zuen, aurretik liburu kolektiboetan George Cukor, Paulino Viota eta Víctor Ericeri buruz idatzi zuena. Hiru bideo egin zituen, Manuel Asinekin elkarlanean, Oteiza Museoko (Altzuza, Nafarroa) erakusketa baterako.
Arte Ederren Zirkulurako (Madril) programatzeaz gain, zinema irakaslea da bere Hegoaldeko Eskolan (Arte Ederren Zirkulua). Eta 2022tik aurrera Punto de Vista (Iruña-Pamplona) Jaialdiko hautaketa batzordean parte hartzen du. Hainbat film laburren ondoren, 2018 eta 2022 artean, Las tierras del cielo (2023) opera prima egin zuen.

(Madrid. 1981) Diplomado en Dirección de Cine en La Fémis de París. En 2004 realiza el mediometraje 'personal' Para Julia. Vuelve a dirigir en 2012 el corto Pissing Territories, al que sigue el mediometraje Retrato en dos tiempos (2014). Característica de su cine es la palabra, que cobra especial relevancia para describir retratos. Continúa realizando guiones para los cineastas Gonzalo García Pelayo, Santos Díaz o Ángel Santos. También traduce a castellano 'Amistad, el último toque Lubitsch' (Samson Raphaelson. 2012), y paralelamente escribe crítica para las revistas Lumière, Détour, Foco o SoFilm.
En 2020 escribe 'Ozu, multitudes' (Athenaica), anteriormente había escrito sobre George Cukor, Paulino Viota y Víctor Erice en libros colectivos. Realiza 3 videos, en colaboración con Manuel Asín, para una exposición del Museo Oteiza (Alzuza, Navarra).
Además de programar para el Círculo de Bellas Artes (Madrid), es profesor de cine en su Escuela Sur (Círculo Bellas Artes). Y a partir de 2022 participa en el comité de selección del Festival Punto de Vista (Iruña-Pamplona). Tras varios cortometrajes, entre 2018 y 2022, realiza su ópera prima Las tierras del cielo (2023).

# Ekain Albite (K. Negu)

## BIOgrafía



(Zumaia, Gipuzkoa. 1999). 2017an Zuzendaritza Gradua egin zuen (ESCAC, Katalunia). Formatu analogikoarekin liluratuta, ikasketetan zehar egindako film laburrak formatu horretan egiten ditu. Negu Kolektiboa ere sortu zuen, lagun eta lankideen artean (Kolektiboko 10 kidek elkar ezagutzen dute ESCACeko 1. mailan). Erroitz (2019, flb), A Rabassa Morta (2020, flb) eta Uhara (2021, fer).
Karrera-amaierako lana Negu hurbilak (2023) da, 16 mm-tan filmatua, Adrià Roca, Mikel Ibarguren, Nicolau Mallofré eta Ekainek berak sinatua, eta honako hau diote: 'Gure ingurura begiratzen dugu, 15 urte geroago Euskal Herrian gatazka armatuak utzi dituen arrastoak zein diren ikusteko. Arrasto txiki horiek ezagutzen hasi ginenez, denboran atzera bidaiatzen joan ginen'. Locarnoko Zinemaldian aurkeztutako filma, non Aipamen berezia lortzen duten. Halaber, Laiotz (2023) taldean filmatzen du.
Bakarka, Darahali Elkarteak (Zumaia) lagunduta, Sahararen alde, eta Recrea ekoiztetxeak, Hautsitako denbora (2017) zuzentzen du. Urte batzuk geroago, Darahali eta Maluta Films ekoizleekin batera, Haizearen egia (2020) film laburra egin zuen, urte horretako ZINEBIn eta Lekeitioko Euskal Zine Bileran aurkeztua.

(Zumaia, Gipuzkoa. 1999). En 2017 realiza Grado de Dirección (ESCAC, Cataluña). Fascinado por el formato analógico, sus cortos durante los estudios los realiza en dicho formato. También crea el Colectivo Negu entre amigos y compañeros (10 miembros del Colectivo se conocen en 1º de la ESCAC). En colectivo ruedan Erroitz (2019, cm), A Rabassa Morta (2020, cm) y Uhara (2021, mm).
El trabajo fin de carrera es Negu hurbilak (2023), rodado en 16 mm, firmado por Adrià Roca, Mikel Ibarguren, Nicolau Mallofré y el propio Ekain, comentan: 'Miramos a nuestro alrededor para ver cuáles son los rastros que ha dejado el conflicto armado en el País Vasco 15 años después. A raíz de empezar a conocer estos pequeños rastros, fuimos viajando hacia atrás en el tiempo'. Film presentado en el Festival de Locarno, donde obtienen una Mención especial. También en colectivo rueda Laiotz (2023).
En solitario apoyado por la Asociación Darahali (Zumaia) en favor del Sahara, y la productora Recrea dirige Hautsitako denbora (2017), y unos años después también con Darahali y la productora Maluta Films realiza el corto Haizearen egia (2020), presentado en ZINEBI de ese año, y en Euskal Zine Bilera (Lekeitio).

# NEGU HURBILAK

2011. urtea da Euskal Herrian; ez dator jasaten ari den gatazka luzearen amaierarik. Gazte batek herritik ihes egiten du, ez baitu bere burua seguru ikusten, eta Ipar Euskal Herrira pasatuko nahiko du. Zubietara heltzean, mugako herritxo bat, gatazkak eta mitoak bat egingo dira. Ezkutaleku bihurtzen zaion txapitula batetik, herriaren egunerokoari begira egongo da, zeinak denboran iltzatua ematen baitu. Egunak eta gauak badoaz, eta denbora pisua eta nahasia bihurtzen da.
Era kolektiboan egindako zuzendaritza eta gidoia dituen filma, galdera batzuk eta erantzun gutxi planteatzen dituena. Zientzia fikziozkoak diruditen irudiak, nahiz eta toki arruntetatik hartuak izan. Lanbroa, misterioa eta tentsioa.
Pertsonaia bakar bat, zeinaren interpretazioak lortzTen duen bere ezinegona transmititzea.
Locarnoko zinemaldian (Cineasti del Presente), 2023. urtean, Aipamen berezia lortu zuen.

Es el año 2011 en el País Vasco; el prolongado conflicto que se soporta no acaba de llegar a su fin. Una joven huye de su pueblo, donde no se siente segura, y atraviesa la muga hacia Iparralde. Llega a Zubieta, un pueblecito fronterizo donde convergen conflictos y mitos. Desde una buhardilla que se convierte en su escondite, contempla la cotidianidad del pueblo que parece anclado en el tiempo. Los días y las noches se suceden y el tiempo se hace denso y confuso.
Película fruto de una dirección y un guion colectivos que plantea preguntas y da pocas respuestas. Imágenes que parecen de ciencia-ficción, aunque estén tomadas en lugares comunes. Bruma, misterio y tensión.
Un solo personaje cuya sensible interpretación logra trasmitir su angustia.
En el Festival de Locarno (Cineasti del Presente) de 2023 obtuvo una Mención especial.

**19:45**
23/4/2024





**ESPAÑA - 2023 - 93 min**

**Dir** Colectivo Negu: Ekain Albite, Mikel Ibarguren, Nicolau Mallofré, Adrià Roca
**G** Colectivo Negu: anterior-aurrekoa + Xalba Ramirez (C. Negu)
**Mus** Javi Seva
**Int** Jone Laspiur, resto reparto no profesional-gainerako lantalde ez-profesionala

**+ Arnasa,** Raúl Barreras. 2022, 15'. Fic.

**Inv** Ekain Albite (Colectivo Negu), Raúl Barreras

**XII sesión Aitzol Aramaio / XII. Aitzol Aramaio saioa**

# EARWIG

Europan nonbait, XX. mendean. Albert lanean ari da Mia izeneko neska bat zaintzen; egunero listu izoztuarekin egindako hortzeria jartzen dio; neska ez da inoiz kalera irteten. Telefonoak maiz jotzen du, eta "maisua" esaten dioten gizon batek hartaz galdetzen du; egun batean, Albertek jarraibideak jasoko ditu Mia prestatu eta kanpora ateratzeko.
Film hein handian esperimentala, terrore ukituak dituena eta alderdi narratiboa bigarren planoan uzten duena.
Irudi harrigarri eta zoragarriak, inor ez dagoen lurralde batekoak, errealitatearen, ametsaren, memoriaren eta delirioaren artean mugitzen direlarik.
Apustu ausarta ohiko irudietatik irteteko eta narrazioaren ohiko eskemak puskatzeko.
Donostiako Zinemalditik pasatu zenean, ez da gelditu polemikarik sortu gabe.

Algún lugar de Europa en el siglo XX. Albert trabaja cuidando una niña llamada Mia, cada día le pone una dentadura hecha con la propia saliva congelada; la niña nunca sale a la calle. El teléfono suena con regularidad y un hombre conocido como 'el maestro' se interesa por ella; un día Albert recibe instrucciones para preparar a Mia y salir al exterior.
Se trata de una película, en buena parte experimental con toques de terror, en la que la vertiente narrativa queda en segundo plano.
Imágenes, sorprendentes y maravillosas, que se mueven en una tierra de nadie, entre la realidad, el sueño, la memoria, el delirio.
Una apuesta valiente por un cine que se sale de los márgenes de lo convencional y rompe los esquemas habituales de la narración.
Su paso por el Festival de San Sebastián no ha estado exento de controversia.

**19:45**
30/4/2024





**REINO UNIDO/FRANCIA/BÉLGICA - 2021 - 114 min**

**Dir** Lucile Hadzihalilovich
**G** Geoff Cox, Lucile Hadzihalilovic
**Fot** Jonathan Ricquebourg
**Mus** Warren Ellis, Augustin Viard, Nicolas Becker
**Int** Paul Hilton, Romane Hemelaers, Romola Garai, Alex Lawther, Anastasia Robin

**+ tráiler del FANT**

**PreFANT·2024**

# ZINZINDURRUNKARRATZ

Dokumental bat saiatzen dena erakusten soinuak nola eraikitzen dituen gure oroitzapenak. Zinzin haran haizetsu bat da, eta izenak berak ere haizearen soinua du. Durrundurrun arroila sakon bat da; bertara erortzen diren harriek oihartzun luze batean galtzen dira. Eta Kurrutzkarrazko tontorrean, berriz, tximistak jotzen du bere ostots eta errez betetako urradura eta guzti.
Oscar Alegria, bere asto Paolorekin, arbasoek aspaldi ibilitako bideetan barrena dabil, isiltasunean baina naturaren soinuak estalirik. Formak eta edukiak bat egiten dute, eta arima laztantzen dute aurreneko momentutik; naturarekin eta arbaso zaharrekin konektatzen gaituen poesia.
Beste behin ere, Oscar desagertzen ari diren gauzez mintzo zaigu guztiz originala den ikuspegi batetik. Gozatzeko une aparta.

Un film de no ficción en el que se busca el papel del sonido en la construcción de nuestros recuerdos. Zinzin es un valle ventoso y su nombre suena como el sonido del viento. Durrundurrun es una sima profunda donde la piedra que cae se pierde en un largo eco y Kurrutzkarratz es el pico en el que golpea el rayo con su estruendo y su desgarro lleno erres.
Oskar Alegria,  junto a su burro Paolo, recorre los caminos que mucho antes recorrieron sus abuelos, silenciosamente pero envuelto por el sonido de la naturaleza. Forma y contenido se funden y acarician el alma desde el primer momento; poesía que nos conecta con la naturaleza y nuestros antepasados.
Una vez más, Oskar nos habla de cosas que están desapareciendo desde una perspectiva plenamente original. Una ocasión para disfrutar.

**19:45**
7/5/2024





**ESPAÑA - 2023 - 89 min**

**Dir** Oskar Alegría
**G** Oskar Alegría
**Fot** Oskar Alegría
**Int** (Documental) Oskar Alegría

**+ Kusikozu,** Aitor Irulegi. 2023, 7'. Anim.

**Inv** Oskar Alegría, Aitor Irulegi

# Oskar Alegría

## BIOgrafía



(Iruña. 1973). Kazetaritzan lizentziatua (Nafarroako Unibertsitatea. 1996), Madrilgo erreportaria Canal Plus eta CNN+ kateentzat, gero 'ibiltaria' bidaia-artikuluak idazten El País egunkariko gehigarrian, 'Las ciudades visibles' argazki-proiektua ere egiten du. EiTBrako eta beste telebista batzuetarako dokumentaletako gidoilari eta zuzendari laguntzailea da. 2012an Emak Bakia baita zuzendu zuen, 2014ko urtarrilean Fasen aurkeztu zuen dokumental maitagarria (2160 saioa). Kontaktu 'maitasuna' izan zen, 2013-2017 aldian Punto de Vista Nazioarteko Jaialdiko (Iruña) zuzendari artistiko izan baitzen, 'trukeak' egiten ditugu. 2016ko Aitzol saioan izan zen bi film laburrekin: Galtzerdi berdeak (2015) eta Margodantza (2015). Urte horretan bertan proiektatu genuen Keiwan Karimi-ri elkarrizketa + 223 Words (ezin izan zen bertaratu). 2018an, Hotza zatia egin zuen, Gure oroitzapenak (Sarrionaindiari buruz) luzerako, "Aitzol-2019" filmean proiektatua. Eta bere Zumiriki (2019) lanarekin bisita egingo digu 2021ean, non bera den protagonista, oroitzapenetan bildutako ermitau gisa. Orain zure Zinzindurrunkarratz-ekin (2023) bisita errepikatu duzu. Ea zer kontatzen diguzun?... interesgarria eta berritsua, zalantzarik gabe!

(Pamplona. 1973). Licenciado en Periodismo (Universidad de Navarra. 1996), reportero en Madrid para Canal Plus y CNN+, luego 'viajero' escribiendo artículos de viajes en el suplemento de El País, también realiza el proyecto fotográfico 'Las ciudades visibles'. Es guionista y ayudante de dirección en documentales para eitb y otras televisiones. En 2012 dirige Emak Bakia baita, un documental entrañable que presenta en el Fas en enero de 2014 (sesión 2160). Fue un contacto 'flechazo', ya que en su periodo 2013-2017 de director artístico del Festival Int. Punto de Vista (Pamplona) realizamos 'intercambios'. Nos visitó en la sesión Aitzol de 2016 con dos cortos: Galtzerdi berdeak (2015) y Margodantza (2015). Ese mismo año proyectamos su Entrevista a Keiwan Karimi + 223 Words (no pudo acudir).
En 2018 realiza el fragmento Hotza, para el largo Gure oroitzapenak (sobre Sarrionaindia), proyectado en 'Aitzol-2019'. Y nos visita en 2021 con su trabajo Zumiriki (2019), en el que él es el protagonista, a modo de ermitaño envuelto en los recuerdos. Ahora repite visita con su Zinzindurrunkarratz (2023) ¿A ver qué nos cuenta?...interesante y locuaz ¡sin duda!

ZINEBI

# XI Festival de Cortometrajes
# KORTeN! FAS 2024
# XI. Film Laburren Zinemaldia

**2024/4/9**
KORTeN! (7) **Chiquitita,** Aitor Elorriaga. 2023, 3'. Fic.

**2024/4/16**
KORTeN! (8) **Canción Amarga,** Lorenzo D. García. 2023, 12'. Fic.

**2024/4/23**
KORTeN! (9) **Arnasa,** Raúl Barreras. 2022, 15'. Fic.

**2024/5/7**
KORTeN! (10) **Kusikozu,** Aitor Irulegi. 2023, 7'. Anim.

**2024/5/14**
KORTeN! (11) **Asko falta da?,** Ane Cuesta. 2022, 12'. Fic.

**2024/5/28**
KORTeN! (12) **Sorbeltza,** Iban del Campo. 2023, 16'. Fic.

# NOT A PRETTY PICTURE

Zuzendariak hamabi urte lehenago pairatutako eraso sexual baten errekreazioa. Martha bortxatu egin zuten ikaskide zahartxoago baten festan; denbora pasatuta, gertatutakoa dramatizatu egin du aktore talde batekin Nueva Yorkeko loft batean. Erasoaz modu irekian dihardu, eta elkarrizketa zintzoak ditu horrelako egoeretan sortzen diren botere dinamika desorekatuez.
Fikzioa eta dokumentala nahasten dituen lan kilikagarria, barneko drama adierazten duena zuzendariaren eta aktoreen arteko interakzioarekin. Kontakizun originala eta oso indartsua horrelako egoera bat nola sumatzen den ikusteko.
Zuzendariaren hitzetan, "uste dut ona izan zela formatu dokumental-narratibo hori erabiltzea, zeren eta esan nahi zuen nik neuk ere argiago ulertu behar nuela. Gauza izan behar nuen gertatu zitzaidana beste batzuei kontatzeko".

La recreación de una agresión sexual sufrida por la directora, doce años antes. Martha fue violada durante una fiesta por un compañero de clase algo mayor que ella; pasado el tiempo dramatiza lo ocurrido con un grupo de actores en un loft de Nueva York. Habla de su agresión abiertamente y mantiene conversaciones sinceras sobre la desequilibrada dinámica de poder que se produce en esas situaciones.
Un fascinante híbrido de ficción y documental, que expresa el drama interior mediante la interacción entre directora y actores. Una narrativa original y muy potente sobre cómo se percibe y se vive una situación así.
En palabras de la directora 'Creo que fue bueno usar ese formato documental/narrativo, porque significaba que tenía que entenderlo más claramente para mí misma. Tenía que ser capaz de explicar lo que me había ocurrido a otras personas'.

**19:45**
14/5/2024

## NOT A PRETTY PICTURE



**EEUU - 1976 - 83 min**

**Dir** Martha Coolidge
**G** Martha Coolidge
**Fot** Don Lenzer, Fred Murphy
**Mus** Tom Griffith
**Int** Michele Manenti, Jim Carrington, Anne Mundstuck, John Ferdinatz, Amy Wright

**+ Asko falta da?,** Ane Cuesta Monge. 2022, 12'. Fic.

**Inv** Ane Cuesta Monge

# LA LUNA SE LEVANTA

## TSUKI WA NOBORINU

Setsukok ahizpa bat eta lagun bat ditu, eta erromantze bat izan dezaten saiatuko da bere auzotar Shojiken laguntzarekin. Gidoi honetan, parte hartu dute Ozuk eta japoniar maisuaren filmetatik ezaguna zaigun aktore batek. Irudi neurritsuak eta erritmo pausatua. Baina kasu honetan emakume bat da zuzendaria, eta errealizazioan amerikar estiloaren ukituren bat igartzen zaio. Berria da ere ahizpa txikiak istorioan duen kokapena, zinema japoniar klasikoan emakumeak agertu ohi direna baino independenteagoa, gauzak zirt edo zart egiten dituena.

Oso film interesgarria, japoniar kulturaren balioak erakusten dituen zinemagilea ezagutzeko parada ematen diguna: morala, betebeharraren zentzua, besteenganako eskertza... Horiek, bestalde, balio unibertsalak baitira, nahiz eta oraingoan Japoniako gerraosteko baldintza berezietan erakusten dizkiguten.

Setsuko y su vecino Shoji instigan el romance entre la hermana mayor de ella y un amigo de él. Un guion en el que ha participado Ozu y un actor que nos es familiar por las películas del maestro japonés. Imágenes sobrias y ritmo pausado. Pero en este caso la dirección es de una mujer y se adivina algún toque de estilo americano en la realización. También resulta novedosa la posición en la historia de la hermana pequeña, más independiente y resuelta de lo que suelen aparecer las mujeres en el cine japonés clásico.

Una película muy interesante que nos permite conocer a una cineasta que muestra también los valores de la cultura japonesa, la moral, el sentido del deber, el agradecimiento a los demás que, por otra parte, son valores universales, aunque esta vez se nos muestren en las condiciones especiales de la posguerra en Japón.

**19:45**
21/5/2024

LA LUNA SE LEVANTA



## JAPÓN - 1955 - 102 min

**Dir** Kinuyo Tanaka
**G** Yasujirō Ozu, Ryōsuke Saltō
**Fot** Shigeyoshi Mine
**Mus** Takinori Saito
**Int** Chishu Ryu, Hisako Yamane, Yōko Sugi, Mie Kitahara, Shoji Yasui

SESIÓN **2529** SAIOA

# VIDAS PASADAS

## PAST LIVES

Haurtzaroko bi adiskide minen istorioak, elkarri maitasun handia diotenak. Nora eta Hae Sung ikaskideak dira Hego Korean; Norak 10 urte dituenean familiak Kanadara alde egiten du, eta banandu egiten dira.
Urte asko geroago, Nora Nueva Yorken ari da antzerkiko idazle, eta Internetez topatzen dira berriz; harreman bat izaten dute distantziara, eta bere horretan gelditzen da; eta hirugarren topaketa bat izango dute, aurrez aurrekoa, Nora Nueva Yorkeko judu batekin ezkonduta dagoela.
Oscarretarako izendatutako filma (filmik onenerako eta gidoirik originalenerako) eta izendapenak izan dituena beste zinemaldi batzuetan: BAFTA sariak, Berlingo Zinemaldia, Sundanceko Zinemaldia eta abar.
Maitasun istorio bat hiru ekitalditan, xumea eta kontakizun sotila duena, gozoa mikatz ukitu batekin; ez da zentratzen hiru erpineko harreman batean baizik eta beste gai batzuk iradokitzen dizkigu, emigratzen duenaren bakardadea, besteekin konektatzeko beharra, itxaropen aldakorrak...

La historia de dos amigos de la infancia que experimentan una fuerte conexión vital y afectiva. Nora y Hae Sung son compañeros de escuela en Corea del Sur; cuando Nora tiene 10 años su familia emigra a Canadá y se separan.
Muchos años después, Nora trabaja en Nueva York como escritora de teatro y se reencuentran en internet; mantienen una relación a distancia que termina; y tienen un tercer encuentro, presencial, cuando Nora está casada con un judío neoyorquino.
Película nominada a Premios Oscar (mejor película y guion original) y con nominaciones también en otros festivales, Festival de Berlín, Festival de Sundance, Premios BAFTA, etc.
Una historia de amor en tres actos, modesta y de narración sencilla, dulce con un toque amargo que no se centra en un triángulo amoroso sino que sugiere otros temas, la soledad del que emigra, la necesidad de conectar con otros, las expectativas cambiantes....

**19:45**
28/5/2024





## COREA DEL SUR/EEUU - 2023 - 105 min

**Dir** Celine Song
**G** Celine Song
**Fot** Shabier Kirchner
**Mus** Christopher Bear, Daniel Rossen
**Int** Greta Lee, Yoo Teo, John Magaro, Moon Seung-ah, Youn Ji-hye

**+ Sorbeltza,** Iban del Campo. 2023, 16'. Fic.

**Inv** Iban del Campo

# EL REGRESO DE LAS GOLONDRINAS

## YIN RU CHEN YAN

Landa munduko drama bat, maitasun istorio bat Urrezko Galburua eman ziona SEMINCIn 2022an.
Macon astoa adiskide bakarra duela eta Cao bere herrenarekin kanporatu egiten dituzte bere familietatik eta hitzartutako ezkontza bat izatera behartzen dituzte; etxe bat eraiki beharko dute nola edo hala bizitzen jarraitzeko. Aurkakotasunean eta borroka horretan, maitasun lotura bat sortuko da elkarren artean. Testuinguruari dagokionez, exodo bat abiatzen da Txinan herri txikietatik herri handietara eta baserri giroko bizimodua okertuz joaten da egunez egun. Filmak geruza soziopolitiko bat du, Erdi Aroko trazuak dituen egoera bat erakusten duenean, zeinetan bikote protagonistak adorea hartu beharko baitu heroismoz baina men egin gabe. Baztertuta dauden bi lagunen maitasun isila, fintasun handiz kontatua.

Un drama rural, una historia de amor que se hizo acreedora de la Espiga de Oro de la SEMINCI en 2022.
Ma con su burro como único amigo y Cao arrastrando su cojera, son expulsados de sus respectivas familias y obligados a contraer un matrimonio concertado; tendrán que construir un hogar en el que sobrevivir. En la adversidad y la lucha se forja entre ellos un vínculo afectivo. En el contexto, una época en que, en China, se desata el éxodo de la población rural a la ciudad y las condiciones de vida en el campo empeoran día a día. La película tiene un trasfondo sociopolítico, en cuanto que muestra una situación con tintes feudales en las que la pareja protagonista debe sobreponerse con heroísmo pero sin sometimiento. Un amor silencioso entre dos personas marginadas contado con gran delicadeza.

**19:45**
4/6/2024

EL REGRESO DE LAS GOLONDRINAS



**CHINA - 2022 - 131 min**

**Dir** Li Ruijun
**G** Li Ruijun
**Fot** Wang Weihua
**Mus** Peyman Yazdanian
**Int** Wu Renin, Christina Hai, Guangrui Yang, Dengping Zhao, Cailan Wang

**Sesión en colaboración con Economistas sin Fronteras y Colegio Vasco de Economistas / Mugarik gabeko Ekonomilariak eta Euskal Ekonomisteen Elkargoa-rekin elkarlanean saioa**

# TE ESTOY AMANDO LOCAMENTE

Sevilla, 1977a, homosexualtasuna delitu da, Arriskugarritasun Sozialaren Legea indarrean dagoelako. Reme emakume xaloa da, eta bizia aldatuko zaio semea homosexuala duela jakitean. Egoera bidegabea dela konturatu, eta LGTBI mugimenduan sartuko da.

Egiazko gertakizunetan oinarritua; aldarrikatu eta aldi berean dibertitu egiten du, inortxo ere iraindu gabe. Remeren bizitzako bidaia erakusten du, Ana Wagenerrek zoragarri interpretatua eta bigarren mailako talde zoragarri batek lagundua.

Harrena ona izan du zinemaldietan; besteak beste: Goya sarietan, bost izendapen eta kanturik onenaren saria; Zinema Iberoamerikarraren Platinozko Sarietan, komedia onenaren izendapena; Feroz sarietan, lau izendapen eta banaketako emakume aktorerik onenaren saria.

Gozatzeko filma, pertsonaia bizi, alai eta ausartez lagundua.

Sevilla año 1977, la homosexualidad es delito porque está vigente la ley de peligrosidad social. Reme es una mujer sencilla, cuya vida se altera al conocer que su hijo es homosexual. Se conciencia por lo injusto de la situación y se involucra en el movimiento LGTBI.

Película inspirada en hechos reales que reivindica y, al mismo tiempo, divierte sin ofender a nadie. Muestra el viaje vital de Reme, magníficamente interpretada por Ana Wagener, a la que acompañan un grupo de estupendos secundarios.

Ha sido muy bien recibida en festivales; 5 nominaciones en los Goya y premio a la mejor canción; Premios Platino del Cine Iberoamericano, nominada a mejor comedia, Premios Feroz, 4 nominaciones y premio a la mejor actriz de reparto, entre otros.

Una película para disfrutar, acompañando a sus personajes desenfadados, alegres y valientes.

**19:45**
11/6/2024

# TE ESTOY AMANDO LOCAMENTE



## ESPAÑA - 2023 - 107 min

**Dir** Alejandro Marín
**G** Alejandro Marin, Carmen Garrido Vacas
**Fot** Andreu Ortoll
**Mus** Nico Casal
**Int** Ana Wagener,Omar Banana, Alba Flo-res, Jesús Carroza, Carmen Orellana

**Inv** Carlos Loureda

**Sesión en colaboración con Zinegoak /**
**Zinegoak-ekin elkarlanean saioa**

# 'PIONERAS DEL CINE MUDO FRANCÉS'

Alice Guy-Blaché-ren (1873-1968) 13 lan ikusiko ditugu, 1898 eta 1907 bitartean eginak, 1'-tik 10'-ra iraupena: Chez le magnétiseur, Chirurgie fin de siècle, Chez le photographe, edo Le billet de banque, besteak beste. Zinemaren historiako fikziozko lehen zinemagilearen mundua osatzen duten lanak. Berak Léon Gaumont (asmatzailea eta industrialaria. 1864-1946) bera iradoki zuen ikusmira bizidun sinpleak utzi eta gidoidun istorio txikiak filmatzea. Gainera, filmatzeko baimena ere ematen zaio, gizonentzat baino ez zena. Gidoiak eta zuzendaritza artistikoa ere egingo ditu. Blaché abizena 1907an ezkondu zen Herbert Blaché kameralariarengandik dator, eta urte horretatik aurrera Estatu Batuetara emigratzen dute.
Germaine Dulac (1882-1942), zuzendaria, kazetaria eta zinema kritikaria. 1906an ezkondu zen Louis-Albert Dulac-ekin (haren abizena hartu zuen). Irène Hillel-Erlanger idazlearekin batera sortu zuen DH Films, eta Irèneren gidoiekin hasi zen zuzentzen 1915ean, 1934ra arte. La souriante Madame Beudet (1923) lanean ere gidoia egin zuen.
Tintontzian geratzen zaizkigu: Musidora (aktorea eta zuzendaria. 1889-1957), Marie-Louise Iribe (aktorea, zuzendaria eta ekoizlea. 1894-1934) edo Nicole Védrès (idazlea, kazetaria, gidoilaria eta zuzendaria. 1911-1965)... jarraituko du.

Recorreremos 13 trabajos de Alice Guy-Blaché (1873-1968), realizados entre 1898 y 1907, de 1' a 10' de duración: Chez le magnétiseur, Chirurgie fin de siècle, Chez le photographe, o Le billet de banque, entre otros. Trabajos que componen el mundo de la primera cineasta de ficción de la historia del cine. Ella sugirió al propio Léon Gaumont (inventor e industrial. 1864-1946) abandonar vistas animadas simples para rodar pequeñas historias con guion. Además se le permite dirigir, algo que quedaba reservado exclusivamente a hombres. También realizará guiones y dirección artística. El apellido Blaché viene del camarógrafo Herbert Blaché, con el que se casó en 1907, y a partir de ese año emigran a Estados Unidos.
Germaine Dulac (1882-1942), además de directora, periodista y crítica de cine. Casada en 1906 con Louis-Albert Dulac (de quien toma el apellido). Junto a la escritora Irène Hillel-Erlanger funda DH Films, y comienza a dirigir con guiones de Irène en 1915, hasta 1934. En La souriante Madame Beudet (1923) también realiza el guion.
En el tintero se nos quedan: Musidora (actriz y directora. 1889-1957), Marie-Louise Iribe (actriz, directora y productora. 1894-1934) o Nicole Védrès (escritora, periodista, guionista y directora. 1911-1965)... continuará.

**19:45**
18/6/2024





## FRANCIA - 1898/1923 - 80 min

**Dir** Alice Guy / Germaine Dulac
**Fot** Alice Guy, Maurice Forster, Paul Parguel
**Int** Germaine Demoz, Alexandre Arquillière,...

**Inv** Josetxo Fernández de Ortega (piano)

**Cine mudo con música en directo / Zinema mutua zuzeneko musikarekin**

**Sesión en colaboración con [H]emen e Inst. Francés / [H]emen-ekin eta Frantziako Institutoa-rekin elkarlanean saioa**

## Patrocinadores y colaboradores / Babesle eta laguntzaileak

**Foro del cine y de la imagen de Bilbao**

Centro cívico de Olabeaga - San Nicolás de Olabeaga, 33, 2º piso - Tel.: 944425344 - 618 318 431
info@cineclubfas.com / www.cineclubfas.com / Twitter: @cineclubfas / Facebook: Cineclub Fas / instagram: @faszinekluba
Proyecciones: Salón Indautxu (Plaza Indautxu)